

Garabide Herri Indigenen Foroan izan da, New Yorken, euskal ordezkariaren barruan

2009/05/25

Maiatzaren 18tik 22ra bitartean New Yorken izan dira Jon Sarasua eta Urko Kolomo Garabide elkartearen ordezkariak, Ipar Euskal Herriko beste hiru ordezkariarekin batera: **Audrey Hoc**, **Maylis Iriart**, **Teresa Mitxelena** eta **Jokin Irungarai**. Denek parte hartu dute Herri Indigenen Foroan, Nazio Batuen Erakundeak antolatu baitu zortzigarren aldiz bilkura hori bere egoitza nagusian.



Helburuak

Euskal Herriko ordezkariak hiru helburu landu ditu foroan:

1. Euskal Herriaren egoera ezagutarazi. Euskal Herriko gazteriak etxebizitza, lan arloan, elikadura arloan... dituen kezkek eta beharrak plazaratu.
2. Euskal Herriko nortasunaren berreskurapen esperientzia zertan den azaldu eta nortasunean euskarak izan duen garrantzia azpimarratu. Munduko herri indigenak hizkuntzaren galerak duen eraginaz eta garrantziaz ohartarazi nahi ditugu eta gai hau euren agendetan lehentasuna izateko hausnarketa sortarazi.
3. Euskararen esperientzia partekatzeko Garabide Elkartearen berri eman euren hizkuntza berreskurapenean dabiltzan kideei.

Euskaldunen artean Audrey Hock eta Urko Kolomok hitz egin zuten, lehenak Euskal Herriak zer egoera bizi duen azalduta (hitzaldirik txalotuena, Berria egunkariak zioenez), eta bigarrenak Garabide elkartearen asmoen berri emanda. Foroa bukatutakoan, denak ere pozik itzuli dira Euskal Herrira.

Herri Indigenen Foroa

Nazio Batuen Erakundeak sortu zuen batzar hori, hitza emateko munduko jatorrizko herriei. Bertan mundu guztitik joandako ordezkari indigenek hartzen dute hitza, euren herrien berri eman eta dituzten aldarrikapenak Nazio Batuen Erakundearen plaza handian egiteko.